



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 12a

145. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko administrazioarekiko hartu-emanak bultzatuz, exijitze aldera Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioak ondorio guztietarako har daitezkeen Osasun Sistema Nazionalako asegurdun gisa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baterako hezkuntzako edota berdintasuneko hezkuntzako plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatzaioak gauzatzeko aldera. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan "konpromiso sozialeko proiektua" izeneko zigilua arautuko duten foru aginduak. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria dela-eta, eta zein izanen den greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan. Galdera erretiratzeari (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean arautzen da, besteak beste, entitate publikoek dituzten herrilurren aprobetxamendua. Aprobetxamenduen prezioak urtero eguneratzeko bi adierazle aipatzen dira: KPIa eta nekazariak eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioen indizeak.

Nafarroako Gobernuak, urtarrilaren 15eko 14/2013 Foru Aginduaren bidez, Nafarroan 2012. urtean nekazariak eta abeltzainek jasotako prezioen indizeetan izan diren urtetik urterako aldaketak ezarri zituen.

Aipatu foru aginduan informazio estatistikoa ematen da, Nafarroako nekazariak eta abeltzainek nekazaritzako produktuengatik ekitaldian jasotako prezioen indizeetan izan diren aldaketa tasei buruz.

14/2013 Foru Agindua dator Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betetzetik. Izan ere, aipatu legearen 27. artikulua agintzen du hura erabili behar dela Nafarroako toki entitateek nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzan egindako herrilur-aprobetxamenduen

urte anitzeko errentamenduen prezioaren urteroko eguneratzean.

Aipatu artikulua gehitzen du ezen herrilurren gainerako aprobetxamenduetan, iraupena urtebete baino luzeagoa bada, eguneratze hori eginen dela kontsumoko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren arabera.

14/2013 Foru Aginduan jasotzen denez, nekazaritzako produktuen gorakada ehuneko 15,11koa da, eta kasuen arabera aldaketak ehuneko 4,5etik ehuneko 37ra artekoak dira; animalia produktuetan gorakada ehuneko 9,36koa da, eta aldaketak, produktuen arabera, ehuneko -7,7tik ehuneko 10era artekoak; zuraren kasuan ezartzen den gorakada ehuneko 3,24koa da. Era horretan, 2012. urterako ezartzen den gorakada ehuneko 12,1koa da.

Iragandako denboragatik eta ikusita zer eragin izan dituen nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako herrilur-aprobetxamenduak nekazaritza produktuen prezioetan izandako aldaketa-tasaren arabera eguneratzeak, beharrezkoa da eguneratze-formula egokitzea.

Halatan, 2/1995 Foru Legeak jadanik berak aukera ematen du eguneratzea KPIaren bidez egiteko, eta adierazle hori egokiagoa eta bidezkoa da gaur egun.

Izan ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialak berak 2013an erakusten duenez, nafar udalek bi aukerak erabiltzen dituzte herrilur-aprobetxamenduei buruzko udal ordenantzetan. Alegia, batzuetan eguneratze-oinarritzat KPIa hartzen da (gehienean, zehaztu gabe adierazlea Nafarroakoa edo Espainiakoa den), eta beste batzuetan erabiltzen den formula da lehen sektoreko produktuek zer aldaketa izan dituzten. Egoera honek aholkatzen du irizpide bateratua ezartzea, herrien artean desberdintasunik sor ez dadin.

Artikulu bakarra.

27. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“Aprobetxamenduaren iraupena urtebete baino luzeagoa denean, behar diren ordenantzetan edo baldintza-pleguetan klausula bat jarriko da, aprobetxamenduaren kanona edo prezioa urtero

eguneratzekoa, kontsumoko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren arabera.”

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkez-

tu zuen, eta 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa.*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual eta transexualentzako laguntza-bulegoa sortzekoa.

Proposamen hori 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko administrazioarekiko hartu-emanak bultza ditzan, exijitze aldera Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioak ondorio guztietarako har daitezen Osasun Sistema Nazionaleko asegurdun gisa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko administrazioarekiko hartu-emanak bultza ditzan, exijitze aldera Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioak ondorio guztietarako har daitezen Osasun Sistema Nazionaleko asegurdun gisa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren Estatuko Administrazioarekiko hartu-emanak bultza ditzan –Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionale–, exijitze aldera Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioak ondorio guztietarako har daitezen Osasun Sistema Nazionaleko asegurdun gisa eta osasun-laguntza jaso ahal izan dezaten, gainontzeko herritarren baldintza beretan, lurralde nazional osoan eta Europako Osasun-txartela onartzen den herrialde guztietan.”

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baterako hezkuntzako edota berdintasunezko hezkuntzako plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baterako hezkuntzako edota berdintasunezko hezkuntzako plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baterako hezkuntzako edo berdintasunezko hezkuntzako plan bat egin dezan, Hezkuntza Departamentuak bultzatuta eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak lagunduta.

• Plan hori paraidetzakoa izanen da, eta bertan parte hartuko dute, besteak beste, irakasleek, ikasleek eta familiek.

• Plana sei hilabeteko epean aurkeztuko da Parlamentuan”

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Melillako muga-perime-

troan paratzen ari den kontzertina izeneko hortz-
alanbrea berehala kentzeko agin dezan, etorkinen
osotasun fisikorako kaltegarria izateagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako
Gobernua premiatzen du jatorriko herrialdeekiko
garapenerako lankidetzako politikak berreskura di-
tzan; izan ere, immigrazioak pertsona horiek
beren herrialdeetan bizi duten egoera desespera-
tuarekin zerikusia dauka”

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa” Horren jatorria da Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako mozio bat, 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du Hezkuntzako Ikuskapen Zerbi-
tzuaren 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoan
berariaz nabarmen dezala Hezkuntzako Ikuska-
pen Zerbitzuaren eginkizuna dela ikastetxeek
taxututako material didaktikoak aztertzea, bai eta
Nafarroako curriculum ofizialera egokitzen ote
diren aztertzea ere. Eginkizun hau jasota dago
jada aipatu planean eta baita ikasturte honetako
urteko planean ere. Premiatzen du, halaber, jar-
duera hau manten dezan baita hurrengo ikasturte-
etan ere”

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatioak gauzatze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatioak gauzatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parlamentu-taldeek izendaturiko kideez osatutako batzorde negoziatzaile bat era dezan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziatioak gauzatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren mekanismoak ezar ditzan, Legebiltzarra aldiro eta behar bezala informatuta egon dadin negoziatioen bilakaerari buruz"

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan "konpromiso sozialeko proiektua" izeneko zigilua arautuko duten foru aginduak.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko abenduaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan 'konpromiso sozialeko proiektua' izeneko zigilua arautuko duten foru aginduak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko aldaketak sar ditzan 'konpromiso sozialeko proiektua' izeneko zigilua arautuko duten foru aginduetan:

1. Proiektu globalak ondoko esparruetan proposatzen dituzten gizarte-entitateentzako zigilu-emaitea arautzea: gizarteratzea, pobreziaren aurkako borroka, ezgaitasunaren eta mendekotasunaren arloko laguntza-zerbitzua, hegoaldeko herrialdeen garapena, eta abar.

2. "Konpromiso sozialeko proiektua" izeneko zigilua lortzeko deialdira aurkezteko burokrasia-izapideak azkartu eta erraztea.

3. Gizarte-entitateek laguntza publikoetarako aurkeztutako dokumentazio bera baliatzea 'konpromiso sozialeko proiektua' izeneko zigiluaren deialdirako".

Iruñean, 2013ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria dela-eta, eta zein izanen den greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakitekoa zer neurri hartuko zituen Nafarroako Gobernuak anbulantzia-zerbitzuaren greba iragarria zela-eta, eta zein iza-

nen zen greba horren eragina larrialdiak artatzeko zerbitzuetan, eta 2013ko azaroaren 26ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera